

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 51,2 milioi euro erabiliko ditu 2021 arte hondakin- eta euri-urak hobetzeko

500 biztanle baino gutxiagoko udalerrri guztietan jarduerak egingo dira eta 20-25 urte arteko instalazioak berrituko, besteak beste

Jueves, 11 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak, NILSA enpresa publikoak kudeatzen duen Nafarroako Ibaiak Saneatzeko Plan Gidariaren bidez, 51,2 milioi euro inbertituko du 150 proiektu baino gehiagotan hondakin- eta euri-uren tratamendua hobetzeko datozen sei urteetan. Jarduera hori saneamenduko kanonarekin finantzatu da.



Corella, Olazti (argazkian), Erriberri, Zangoza, Tafalla edo Ultzamako araztegiak hobetzea aurreikusten da.

Nafarroako Gobernuak ostegun honetako bilkuran jakin duenez, proiektu berriak lau jardueralerrotan sartzen dira: arazketa biologikoa 500 biztanle baino gutxiagoko udalerrri guztietan; euri-urak eta ur fekalak kontrolatu eta kudeatzea ("ur nahasiak" izenekoak); 20-25 urte arteko egungo instalazioak berritu eta eguneratzea; eta 250 biztanle baino gutxiagoko guneeetan premiazko jarduerak egitea. Berrikuspen horren barnean, ondorengo udalerrietako araztegi-tako instalazioak hobetuko dira: Corella, Olazti, Erriberri, Zangoza, Tafalla edo Ultzama.

2015-2021 plan gidariaren berrikuntzan sartutako udalerrriak, eta hobekuntzak edota azpiegitura berriak izango dituztenak foru-lurralde guztian banatuta daude. Hala, jarduerak honako leku hauetan egitea aurreikusten da: Murillo, Lotza, Anotz, Lantz, Ledea, Puiu, Lizarraga, Torres del Río, Billabeta, Ziordia, Urdazubi, Meotz, Jaitz, Larrion, Monreal, Orbaitzeta, Cabredo, Arano, Torrano, Uxue, Arbeitza, Labio, Aguilar Kodeskoa, Almandoz, Esprontzeta, Desojo, Bera, Baztan, Altsasu, Untzue, Ezkurra, Tafalla, Erriberri, Olazti/Olazagutía, Gorozin, Zubielki, Labeaga, Lukin, Zubieta, Doneztebe/Santesteban, Aroztegi, Zangoza, Valtierra, Arguedas, Cintruenigo, Buñuel, Cortes, Corella, Arbontze, Urzainki, Hiriberri- Aezkoa, Armañanzas, Zugarramurdi, Etxarri-Aranatz, Izuriaga, Ollakarizketa.

Saneamenduko kanonaren bidezko finantzaketa bakarra

Jarduketa horien finantzaketa, eta egungo instalazioen operazioa

eta mantentze-lana –urtean 13 milioi euro gehigarriko batez bestekoan finkatutakoa–, saneamenduko kanonaren bidez ordainduko da; kanon hori Nafarroako zergadun guztiei igortzen zaie ur-ordainagiriaren bidez, eta NILSAk duela 25 urtetik kudeatzen du.

Plan gidariak duen birjartzeko eta konponketetarako funtsa ere aplikatuko da, baina hura ere urte bakoitzerako ematen den kanonaren diru-bilketako zati batekin hornitzen da. 2014an, funts horri saneamenduko kanaon guztiaren % 18,7 esleitu zitzaion, hau da, 27,5 milioi euro.

Ibaiak Saneatzeko Plan horren eguneratzea konfederazio hidrografikoek 2015-2021 aldirako aztertzen ari diren mugape-planek eragin dute neurri batean, eta baita planaren aurreko fasea amaitzeak ere, Gobernuak 1989an sortutakoa.

Eguneratze berri honetan, tokiko azpiegituren planen ekarpenik ez dago, orain arte bezala, eta kanonaren diru-bilketa ez den beste finantzaketa-motarik ere ez. Mugarri bat da hori, kostuak berreskuratzeko Uraren Esparru Zuzentarauak adierazitako printzipioa betetzen baita. Plan gidariaren berrikuspen hori, haren historiako laugarrena, aipatutako arrazoiengatik ingurumeneko eta aurrekontua kudeatzeko erreferentzi bihurtu da.

Ibaiak saneatzeko plana

Lehen eguneratzea 1991an egin zen; orduan, NILSAk, haren enpresa publiko arduradunak eta 1989 an ere sortutakoak, jadanik bazeuden araztegiak bere gain hartu zituen, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eraikitako araztegiak, gehienak. 1989 eta 1995 artean egindako obra pilek beste eguneratze bat eskatu zuten, eta Nafarroako Gobernuak 1996ko urtarrilean onartu zuen.

Horren ondoren, komunitateko funtsei esker (kohesiokoak eta EGEF), obra asko egin ziren, eta Foru Komunitateak hondakin-uren 91/271 Zuzentaria betetzea ekarri zuen 2006. urtean; hala, % 97 behar bezala araztuta izatea erdietsi zen. Aldi horretan, 134 milioi baino gehiago inbertitu zen 50 proiektutan (kolektoreak, ponpaketako putzuak eta araztegiak), komunitateko funtsekin kofinantzatuta (% 25).

2006an planaren hirugarren berrikuspena egin zen, eta hark gaur arte iraun du. Hala, Nafarroako Gobernuak orain berrikuspen berria onartu du, iragan urtarilaren 8an NILSAren Administrazio Kontseiluaren aurrean jadanik izapidetu zena.

Gaur egun, Nafarroak tratamendu aurrerratu tertziarioko ehun bat araztegi ditu, eta oinarrizko tratamenduko bostehun bat fosa eta tanga. 2014an araztutako ur-bolumena 79,9 milioi metro kubiko izan zen, eta instalazio guztien kudeaketa, bai eta kanonarena ere, NILSA enpresa publikoak egiten du. NILSA Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari atxikita dago.